

Pribatuen Iragarkiak

GIPUZKOAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARTE OFIZIALA

IRAGARKIA, onetsi aurretik Estatutu berriak jendaurrean jartzeko epea hasteari buruzkoa. 11963

IES FRANCISCO DE VITORIA BHI

IRAGARKIA, Erizaintzako Zaintza Osagarrien titulu bat galdu dela jakinaraztekoa. 11964

Xedapen Orokorrak

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

2933

76/2007 DEKRETUA, maiatzaren 8koa, Fusarium Circinatum Niremberg et O'donnell onddoak kaltetutako zonetatik datozen basoko produktuak bildu, garraiatu eta tratatzeko arauak ezartzen dituenak.

Fusariuma txankro erretxinaduna eragiten duen onddo da; gaixotasun horrek zuhaitzetan erretxina ugari agertzea dakar. Airetik zabaltzen da eta inausketa-zaurien nahiz eguraldi txarraren (esate baterako, txingorriaren) ondorioz sortzen da. Onddo hau AEBak, Hegoafrika, Txile, Haiti edo Mexiko bezalako herrialdeetan agertu da eta, egun, Euskadin ere badago, Bizkaia eta Gipuzkoako zona jakin batzuetan. Pinus generoak onddo horrekiko oso sentikorrak direnez eta Euskadin espezie hori hain garrantzitsua denez (zuhaiztien % 70 hartzen du), behar-beharrezkoa da gaixotasuna kontrolatzeko premiazko neurriak hartzea.

Egoera horren aurrean, 2006ko ekainaren 9an Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak maiatzaren 26ko 637/2006 Errege Dekretua argitaratu zuen (BOE, 137. zk.), Fusarium Circinatum Niremberg et O'donnell onddoa erauzi eta kontrolatzeko programa nazionala ezartzekoa.

Dekretu horren arabera, nahitaezkoa da basoetan prospektzio eta kontrol sistematikoak egitea, bai ikuskapenak eginda bai laborategietan aztertzeko laginak bilduta; orobat, beharrezkoa da urtean gutxienez azterlan bat egitea, «zona jakin batzuk» mugatzea eta, 6.1.c) artikuluaaren arabera, basoetarako prebentzio-neurriak hartzea. 8. artikulua dio autonomia-erkidegoek sal-

Anuncios Particulares

COLEGIO OFICIAL DE ODONTÓLOGOS Y ESTOMATÓLOGOS DE GIPUZKOA

ANUNCIO relativo a la apertura del periodo de información pública previa a la aprobación de los nuevos Estatutos. 11963

IES FRANCISCO DE VITORIA BHI

ANUNCIO relativo al extravío del título de Técnico en Cuidados Auxiliares de Enfermería. 11964

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

2933

DECRETO 76/2007, de 8 de mayo, por el que se establecen las normas de recogida, transporte y tratamiento de los productos forestales provenientes de las zonas afectadas por el hongo Fusarium Circinatum Niremberg et O'donnell.

El fusarium es un hongo que causa la enfermedad del chancro resinoso que produce en los árboles la aparición de resinaciones abundantes, se extiende por el aire y se ve afectado por las heridas de poda o de inclemencias meteorológicas como los granizos. Este hongo ha aparecido en países como EE.UU., Sudáfrica, Chile, Haití o México, afectando en la actualidad en Euskadi a determinadas zonas de Bizkaia y Gipuzkoa. La sensibilidad del género pinus a este hongo y la importancia de las mismas en Euskadi, dado que suponen en torno al 70% de la superficie forestal arbolada, obliga a establecer medidas urgentes de control de la enfermedad.

Ante esta situación, el Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación publicó el 9 de junio de 2006 (n.º 137 del BOE) el Real Decreto 637/2006, de 26 de mayo, por el que se establece el programa nacional de erradicación y control del hongo Fusarium Circinatum Niremberg et O'donnell.

El Decreto establece la obligatoriedad de realizar prospecciones y controles sistemáticos en los montes, tanto a través de inspecciones visuales como con recogida de muestras para ser analizadas en laboratorios, fija la obligatoriedad de realizar al menos un estudio anual, obliga a delimitar «zonas demarcadas» y en su artículo 6.1.c) establece las medidas preventivas a adop-

buespenak egin ahal izango dituztela neurri horiei dagokienez, betiere, baldintza jakin batzuk betetzen bada (horietako batzuk 8. artikuluko horretan bertan daude). Beste neurri batzuk, ordea, Autonomia Erkidegoak berak finkatu beharko ditu eta, beraz, helburu horrekin, honako arau hau eman da, sektoreari eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako foru-organoei kontsulta egin ondoren.

Hori dela bide, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak proposaturik eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko maiatzaren 8an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Xedea.

1.— Dekretu honen helburua ustez kutsatuta dauden lehen transformazioko produktuak eta landare-jatorriko produktuak (aurrerantzean, basoko produktuak) bildu eta *Fusarium Circinatum* Niremberg et O'donnell onddoak kaltetutako zonatik (aurrerantzean, mugatutako zona) beste zona batzuetara garraiatzeko eta mugatutako zona horietatik lortutako zura tratatzeko bete behar diren baldintzak ezartzea da. Mugatutako zonatzat hartuko da antzemandako guneak eta segurtasun-zonak osatutakoa; azken honek gutxienez kilometro bateko zabalera izango du.

2. artikulua.— Jakinarazpena.

1.— Aldian-aldian egindako ikuskapen-lanen ondorioz gune bat antzematen bada, Foru Aldundiak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritzari jakinarazi behar dio eta honek, berriz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Nekazaritza Zuzendaritza Orokorriari.

3. artikulua.— Lekualdatzearen dokumentazioa eta kontrola.

1.— Mugatutako zonetatik datozen basoko produktu guztiei, maiatzaren 26ko 637/2006 Errege Dekretuak, *Fusarium Circinatum* Niremberg et O'donnell onddoa erauzi eta kontrolatzeko programa nazionala ezartzekoak, 8. artikuluan aipatutako dokumentazioaz gain, garraio-gida ere erantsi beharko zaie eta, bertan, gutxienez honako informazio hau bilduko da: jabea, mozketaren egiteko baimenaren zenbakia, jatorrizko zona, basoa ustiatzeaz arduratzen den enpresaren datuak, garraio-enpresarenak eta, hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, aurretik baimena jaso duen enpresa harzaillearenak.

tar en el caso de masas forestales. El artículo 8 recoge la posibilidad de que las comunidades autónomas establezcan las excepciones respecto a estas medidas siempre bajo el cumplimiento de determinadas condiciones, algunas de ellas fijadas en el propio artículo 8. Otras, sin embargo, deben ser establecidas por la propia Comunidad Autónoma, y con dicho objetivo se dicta la presente norma en cuya elaboración han sido consultados, además del sector, los Órganos Forales de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 8 de mayo de 2007,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

1.— El presente Decreto tiene por objeto establecer las condiciones que han de cumplirse para proceder a la recogida y traslado de los productos de primera transformación y vegetales probablemente contaminados, en adelante, productos forestales, desde la zona afectada por el hongo *Fusarium Circinatum* Niremberg et O'donnell, en adelante zona demarcada, a zonas distintas de éstas, así como el tratamiento de la madera proveniente de dichas zonas demarcadas. Se entenderá por zona demarcada la constituida por el foco detectado más la zona de seguridad debiendo tener esta última una anchura mínima de un kilómetro.

Artículo 2.— Comunicación.

1.— La detección de un foco, resultado de las labores de inspección periódica, deberá ser comunicada por la Diputación Foral correspondiente a la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación para que sea ésta quien lo comunique a la Dirección General de Agricultura del Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación.

Artículo 3.— Documentación y control del traslado.

1.— Todos los productos forestales provenientes de zonas demarcadas deberán ir acompañados, además de la documentación indicada en el artículo 8 del Real Decreto 637/2006, de 26 de mayo, por el que se establece el programa nacional de erradicación y control del hongo *Fusarium Circinatum* Niremberg et O'donnell, de una guía de transporte en la que se recoja, como mínimo la siguiente información: propietario, el número de autorización de corta, la zona de origen, los datos de la empresa encargada de la explotación del monte, de la empresa de transporte y de la empresa receptora que haya sido previamente autorizada según lo dispuesto en los artículos siguientes.

2.– Bai pasaporte fitosanitarioa bai garraio-gida interesdunen eskura jarriko dituzte Foru Aldundietako organo eskudunek.

3.– Eusko Jaurlaritzak, Herrizaingo Sailaren bidez, mugatutako zonatik datozen basoko produktuen garraioa kontrolatzeko sistema ezarriko du.

4.– Produktuak mugatutako zonatik gertuen dagoen zona geografikoan landuko dira. Produktuak arin landuko direla bermatzeko eta enpresa hartzaileen ekoizpen-ahalmenak kontuan izanda, irizpide hori malgutasunez aplikatuko da.

5.– Mugatutako zonan horretarako instalazio egoiak baldin badaude, zura eta lehen transformazioko produktuak behin zurari azala kendu eta 30 minutuz 56 °C-ko tratamendu termikoa (edo material horretan onddoa suntsitu dela bermatzeko baliokidea den tratamendu-tasa) aplikatu ondoren irtengo dira.

6.– Basoko produktuak ezin badira mugatutako zonetan landu eta, ondorioz, beharrezkoa bada horiek beste lurralde historiko edo autonomia-erkidego batera eramatea, Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritzak, 8. artikuluan ezarritako sistema informatiko koordinatuaren bidez, mugatutako zonetatik datozen basoko produktuak lekuz aldatu direla jakinaraziko die foru-organoei eta organo autonomikoei. Era berean, gutxienez zazpi egun lehenago jakinaraziko die produktuak beren eremu geografikoan kokatutako transformazio-enpresetan sartuko direla.

4. artikulua.– Mugatutako zonetatik datozen basoko produktuak hartzeko baimenduta dauden enpresen erregistroa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko mugatutako zonetatik datozen basoko produktuak hartzen dituzten enpresen erregistroa sortu eta arautzen da.

2.– Erregistroa publikoa eta bakarra da Euskal Autonomia Erkidego osorako eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailera atxikita dago, Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritzaren menpe. Bertan, enpresa hartzaileak inskribatuko dira, betiere, dekretu honetan jasotako betekizunak betetzen badituzte eta Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko zuzendariaren ebazpenaren bidez horretarako baimena jaso badute. Erregistroa Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritzako langileen esku egongo da eta zuzendaria izango da horren arduraduna eta hori zuzendu eta kudeatzeaz arduratuko dena.

3.– Inskribatuta dauden enpresek eguneratuta izan beharko dituzte erregistroko datuak eta gertatzen den edozein aldaketa horren arduradunari jakinaraziko dio-

2.– Tanto el pasaporte fitosanitario como la guía de transporte serán puestos a disposición de los interesados por los órganos competentes de las Diputaciones Forales.

3.– El Gobierno Vasco a través del Departamento de Interior establecerá un sistema de control del transporte de los productos forestales provenientes de la zona demarcada.

4.– El procesado de los productos deberá realizarse en la zona geográfica más próxima a la zona demarcada. Al objeto de garantizar el rápido proceso de los productos y teniendo en cuenta las capacidades de producción de las empresas receptoras este criterio se aplicará de manera flexible.

5.– Cuando en la zona demarcada existan instalaciones adecuadas, la salida de la madera y de los productos de primera transformación deberá realizarse una vez que la madera haya sido descortezada y sometida a un tratamiento térmico de 56 °C durante 30 minutos o tasa equivalente de tratamiento al objeto de garantizar la destrucción del hongo en dicho material.

6.– Cuando el procesado de los productos forestales no pueda realizarse dentro de las zonas demarcadas, siendo necesario su traslado a otro Territorio Histórico o Comunidad Autónoma, la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico, a través del sistema informático coordinado fijado en el artículo 8, garantizará la comunicación a los órganos forales o autonómicos sobre el movimiento de dichos productos forestales provenientes de zonas demarcadas. Asimismo, garantizará la comunicación sobre la entrada de dichos productos en las empresas de transformación ubicadas en su ámbito geográfico con al menos siete días de antelación.

Artículo 4.– Registro de empresas autorizadas para la recepción de productos forestales provenientes de las zonas demarcadas.

1.– Se crea y regula el Registro de empresas receptoras de productos forestales provenientes de las zonas demarcadas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– El Registro es público y único para toda la Comunidad Autónoma del País Vasco y está adscrito al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, dependiendo de la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico, y tendrá como función la inscripción de las empresas receptoras que cumplan los requisitos establecidos en el presente decreto y que hayan sido autorizados para tal fin mediante Resolución del Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico. El Registro será atendido por personal de la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico, siendo su director el encargado del mismo y el responsable de su dirección y gestión.

3.– Las empresas inscritas deberán mantener actualizados los datos que constan en el Registro, y comunicar al encargado del mismo las modificaciones que se

te, hori gertatu eta hamar eguneko epean. Horretarako, beharrezko agiri guztiak ekarriko dituzte. Baimendutako enpresen erregistroan egiten diren inskripzioak eta ezeztapenak Lurralde Historikoetako foru-organoei jakinaraziko zaizkie.

5. artikulua.— Enpresa hartzailearen baimen-eskaera.

1.— Fusarium Circinatum Niremberg et O'donnell onddoak mugatutako zonetatik datozen basoko produktak jasotzen dituzten pertsona juridikoek (aurrerantzean, enpresa hartzaileak) xede horretarako sortutako erregistroan inskribatuta eta horretara baimenduta egon behar dute. Horretarako, beren eskaera, eranskin gisa jasotako ereduari jarraiki, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritzara bidaliko dute eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren erregistroan aurkeztuko dute, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako lekue-takoren batean.

2.— Behin eskaera jasota eta ebazpena eman aurretik, Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritzako teknikariek beharrezkotzat jotzen diren egiaztapenak egingo dituzte, baita «in situ» ikustaldiak ere interesdunaren instalazioetara. Teknikari horiek txostena egingo dute eta, bertan, 7. artikuluan deskribatutako betebeharrak betetzeko bideragarritasuna aztertu eta funtzionamendu-protokoloa ezarriko da. Txostena enpresak berak sinatuta egongo da. Horren bidez, 7. artikuluan jasotakoa betetzeko prozesua deskribatuko da. Txosten horren kopia bana helaraziko zaie Foru Aldundietako organo eskudunei.

6. artikulua.— Baimena eman edo ukatzeko ebazpena.

1.— Baimena onartu edo ukatzeko ebazpena Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko zuzendariak emango du eta gehienez ere hiru hilabeteko epean jakinaraziko da, eskabidea Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita. Epealdi horretan berariazko ebazpenik izan ezean, interesdunek eskabideak onetsi egin direla pentsatu ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 43. artikulua araberak.

2.— Dekretu honetan ezarritako baldintzak eta betekizunak bete ezean, baimena kenduko da Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko zuzendariaren ebazpenaren bidez.

7. artikulua.— Enpresa hartzaileen betekizunak eta betebeharrak.

Inskribatutako enpresa hartzaileek honakoak egin beharko dituzte:

produzcan en el plazo de diez días a partir del momento en que se produzca la modificación, acompañando en todo caso los documentos necesarios. Las inscripciones y cancelaciones del registro de las empresas autorizadas serán comunicadas a los órganos forales de los Territorios Históricos.

Artículo 5.— Solicitud de autorización de la empresa receptora.

1.— Las personas jurídicas que reciban productos forestales provenientes de zonas demarcadas por el hongo Fusarium Circinatum Niremberg et O'donnell, en adelante empresas receptoras, deberán estar previamente autorizadas en inscritas en el registro creado a tal fin. Para ello dirigirán su solicitud, según el modelo que se adjunta como anexo, a la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, presentándola en el Registro del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, o bien en los lugares previstos en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.— Una vez recibida la solicitud y con carácter previo a la resolución se realizarán, por los técnicos de la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico, las comprobaciones y verificaciones que se consideren necesarias, incluyendo visitas «in situ» a las instalaciones del interesado. Dichos técnicos elaborarán un informe evaluando la viabilidad del solicitante para cumplir con las obligaciones descritas en el artículo 7 y un protocolo de funcionamiento, que deberá ser suscrito por la empresa, en el que se describa el proceso a seguir para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 7. De dicho informe se enviará copias a los órganos competentes de las Diputaciones Forales.

Artículo 6.— Resolución de concesión o denegación de la autorización.

1.— La resolución de concesión o denegación de la autorización, se adoptará por el Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico y se notificará en el plazo máximo de tres meses, contados a partir del día de entrada de la solicitud en el Registro adscrito al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, transcurrido el cual sin resolución expresa los interesados podrán entender estimada su solicitud de conformidad con lo dispuesto en el artículo 43 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.— El incumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos en el presente decreto dará lugar a la retirada de la autorización mediante Resolución del Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico.

Artículo 7.— Requisitos y obligaciones de las empresas receptoras.

Las empresas receptoras inscritas deberán:

a) Mugatutako zonetatik enpresara heltzen diren garraio-gida guztien kopia gorde.

b) Zur-parkeetan deskargarako berariazko eremua izan.

c) Zura deskarga-eremutik zerratze-eremura igarotzeko prozesua agiri bidez erregistratu.

d) Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritzako teknikariek basoko produktuen lanketari dagokionez egiten dituzten jarraipen-kontrolei men egin.

e) Mugatutako zonatik datozen produktuak albat arinen landu, enpresaren ekoizpen-ahalmenak aintzat hartuta, eta horiei lehentasuna eman enpresak landu ohi dituen basoko beste produktu batzuen aldean.

f) Instalazio egokiak izan eta zurari 30 minutuz 56 °C-ko tratamendu termikoa (edo material horretan onddoa suntsitu dela bermatzeko baliokidea den tratamendutasa) aplikatu.

g) Zurak idortegietan ematen duen denboraren eta horietan dagoen tenperaturaren erregistroa egin.

h) Mugatutako zonetatik datorren lehortutako zuraren loteak identifikatu eta/edo, hala badagokio, baita bukaerako produktuak ere.

i) Mugatutako zonetatik datozen basoko produktuak lantzean sortutako azala erraustu egingo da eta ezingo zaio beste erabilerarik eman. Ahal bada, errausketa enpresaren instalazioetan egingo da. Halakorik izan ezean, kamioi itxian (olanaz edo beste baliabideren batez estalita) garraiatuko da zura baimendutako beste instalazio batera. Hau dekretu honetan ezarritakoa bezatez egingo da.

j) Kamioiak garbitzeko eremu bat izan. Kamioiak behin deskarga amaituta garbituko dira, airearekin; gupilak, berriz, urarekin garbituko dira.

k) Zura aurreko ataletan ezarritakoaren arabera landu ondoren, enpresatik atera ahal izateko pasaporte fitosanitarioa jarriko zaio, Foru Aldundietako foru-organoei emana.

8. artikulua.— Informazio-sistema informatiko koordinatua.

1.— Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak informazio-sistema informatiko koordinatua ezarriko du Foru Aldundiekin eta beste autonomia-erkidego batzuekin, administrazio bakoitzak albat arinen jakin dezan, egoki irizten dituzten kontrolak eta jarraipenak egite aldera, garraioa beren lurraldetik egingo dela eta mugatutako zonetatik datozen basoko produktuek

a) Guardar copia de todas las guías de transporte que lleguen a la empresa proveniente de zonas demarcadas.

b) Disponer de una zona específica de descarga en los parques de madera.

c) Llevar con soporte documental un registro del traspase de la madera de la zona de descarga a la entrada en sierra.

d) Someterse a los controles de seguimiento en el procesamiento de los productos forestales por los técnicos de la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico.

e) Procesar lo más rápidamente posible, de acuerdo con las capacidades de producción de la empresa, los productos provenientes de la zona demarcada dándoles prioridad sobre otros productos forestales que procese la empresa.

f) Disponer de las instalaciones adecuadas y someter a la madera a un tratamiento térmico de 56 °C durante 30 minutos o tasa equivalente de tratamiento al objeto de garantizar la destrucción del hongo en dicho material.

g) Llevar un registro de entrada de tiempos de residencia de la madera en los secaderos y de temperatura de los mismos.

h) Identificar los lotes de madera secada proveniente de zonas demarcadas y /o, en su caso, los productos finales correspondientes.

i) La corteza originada en el procesamiento de los productos forestales provenientes de las zonas demarcadas deberá ser incinerada no pudiendo dedicarse a otros usos. La incineración se realizará preferentemente en las instalaciones de la empresa. En caso de no disponer de ellas, deberá transportarse en camión cerrado (con toldo u otros mecanismos) a otra instalación igualmente autorizada. Este transporte deberá cumplir lo dispuesto en el presente Decreto.

j) Disponer de una zona para la limpieza de camiones, que deberá realizarse, una vez finalizada la descarga, con aire y, las ruedas, con agua.

k) La madera una vez procesada según lo dispuesto en los apartados anteriores deberá ir acompañada, para su salida de la empresa, de un pasaporte fitosanitario expedido por los órganos forales de las Diputaciones Forales.

Artículo 8.— Sistema informático de información coordinado.

1.— El Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación establecerá un sistema informático de información coordinado con las Diputaciones Forales y otras Comunidades Automáticas al objeto de que cada administración tenga conocimiento con la máxima antelación posible, al objeto de efectuar los controles y seguimientos que estimen pertinentes, del transporte de tra-

zein jatorri duten eta zein xede izango duten, produktua landuak edo landugabeak izan.

2.– Dekretu hau garatzearen ondorioz datu pertsonalak tratatu behar izanez gero, hori Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraiki egingo da, baita lege horren garapen-arauetan ezarritakoari jarraiki ere, bereziki, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuetao segurtasun-neurrien erregelamendua onartzen duen ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuan.

9. artikulua.– Baso Osasuneko Batzordea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen eskumen-banaketa ikusita eta *Fusarium Circinatum* Niremberg et O'donnell onddoaren gaixotasuna erauztera bideratutako jardun guztiak koordinatze aldera, Baso Osasuneko Batzordea sortu da. Batzordea Foru Aldundietako bakoitzak izendatzen duen ordezkariak eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko zuzendariak osatuko dute, azken hau lehendakari gisa.

2.– Baso Osasuneko Batzordeak berak ezarriko ditu bere funtzionamendu-arauak. Nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluko II. kapituluaren xedatutakoaren arabera jardungo du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuari dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko ahalmena eman zaio.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko maiatzaren 8an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

vés de su territorio, así como del origen y destino de los productos forestales provenientes de zonas demarcadas, tanto se trate de productos procesados o no procesados.

2.– El tratamiento automatizado de datos de carácter personal que pudiera realizarse como consecuencia del desarrollo del presente decreto se regirá por lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de Carácter Personal y sus normas de desarrollo, especialmente en el Real Decreto 994/1999, de 11 de junio por el que se aprueba el Reglamento de Medidas de Seguridad de los Ficheros Automatizados que contengan Datos de Carácter Personal.

Artículo 9.– Comisión de Sanidad Forestal.

1.– Dado el reparto competencial existente en la Comunidad Autónoma del País Vasco y con el objeto de coordinar todas y cada una de las actuaciones dirigidas a erradicar la enfermedad del hongo *Fusarium Circinatum* Niremberg et O'donnell, se crea la Comisión de Sanidad Forestal, que estará formada por el representante que cada una de las Diputaciones Forales designe y el Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación que actuará como presidente.

2.– La Comisión de Sanidad Forestal establecerá sus propias normas de funcionamiento. En todo caso, ajustará su funcionamiento a lo dispuesto en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación para dictar las disposiciones que considere necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 2007.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

MAIATZAREN 8KO 76/2007 DEKRETUAREN ERANSKINA

..... enpresak,
..... jauna/andrea
ordezkari duela (NAN zk.:), honako ezaugarri hauek ditu:

1.- ENPRESAREN DATUAK:

Enpresaren izena:
IFK:
Herria:
Lurralde-historikoa:
Telefonoa:
Faxa:
Helbide elektronikoa:

2.- JARDUERAREN TEKNIKARI ARDURADUNA:

Izena:
NAN:
Telefonoa:
Faxa:
Helbide elektronikoa:

3.- INSTALAZIOEN KOKAPENA:

Izena:
Helbidea:
Herria:
Lurralde-historikoa:
Telefonoa:
Faxa:
Helbide elektronikoa:

4.- JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Enpresak adierazi du mugatutako zonetatik datozen basoko produktu hauek hartuko dituela:

- a)
- b)
- c)
- d)

Enpresan basoko produktu horietatik ekoizten edo lantzen diren produktuak honako hauek dira:

- a)
- b)
- c)
- d)

Behin zurari azala kendu ondoren, 30 minutuz 56 °C-ko tratamendu termikoa aplikatuko zaio, edo Fusarium Circinatum Niremberg et O'donnell onddoa suntsitu dela bermatzeko baliokidea den tratamendu-tasa.

Mugatutako zonetatik datozen basoko produktuak hartzeko baimenduta dauden enpresen erregistroan inskribatzeko eskatu du. Erregistro hori maiatzaren 8ko 76/2007 Dekretuak sortu du, Fusarium Circinatum Niremberg et O'donnell onddoak kaltetutako zonetatik datozen basoko produktuak bildu, garraiatu eta tratatzeko arauak ezartzen dituenak.

Enpresak hamar eguneko epea izango du Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritzari instalazioetan edo jardueretan egindako aldaketen berri emateko, baita erregistroan jasota dauden datuak aldatzea dakarren beste edozein aldaketaren berri ere.

Halaber adierazi du behar bezala beteko dituela Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritzak egindako funtzionamendu-protokoloan aurreikusitako eskakizunak eta, beraz, protokoloan jasotako eskakizun guztiak beteko direla bermatu du (protokoloa eranskin gisa aurkeztu da, alde guztietan sinatuta).

Enpresak esan du erraztasunak emango dituela Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritzak egin beharreko ikuskarpenak egiteko; horiek aurretik ohartarazpenik egin gabe izan ahalko dira, honakoak kontrolatze aldera:

- Instalazioek aipatu protokoloan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztela.
- Funtzionamendu-protokoloan aurreikusitako eskakizunak betetzen direla, bereziki, fitosanitarioak.

Gainera, enpresak hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko eskatzen zaion dokumentazio guztia ekarriko du.

.....(e)n,(e)ko aren (e)(a)n.

Izpta.:

ENPRESAREN LEGEZKO ORDEZKARIA

ANEXO AL DECRETO 76/2007 DE 8 DE MAYO

La empresa
representada por D./Dña.
con DNI, y cuyas características son:

1.- DATOS DE LA EMPRESA:

Nombre y/o razón social:

CIF:

Localidad:

Territorio Histórico:

Teléfono:

Fax:

E-mail:

2.- TÉCNICO RESPONSABLE DE LA ACTIVIDAD:

Nombre:

DNI:

Teléfono:

Fax:

E-mail:

3.- LUGAR DE LAS INSTALACIONES:

Denominación:

Dirección:

Localidad:

Territorio Histórico:

Teléfono:

Fax:

E-mail:

4.- DESCRIPCIÓN DE LA ACTIVIDAD:

La empresa se compromete a recibir los siguientes productos forestales provenientes de zonas demarcadas:

a)

b)

c)

d)

Los productos fabricados o tratados que salen de la empresa provenientes de los anteriores productos forestales son:

a)

b)

c)

d)

El tratamiento térmico de la madera, una vez que ésta haya sido descortezada, será de 56 °C durante 30 minutos o tasa equivalente de tratamiento que garantice la destrucción del hongo Fusarium Circinatum Niremberg et O'donnell.

Solicita la inscripción en el registro de empresas autorizadas para la recepción de productos forestales provenientes de las zonas demarcadas, creado por el Decreto 76/2007 de 8 de mayo, por el que se establecen las normas de recogida, transporte y tratamiento de los productos forestales provenientes de las zonas afectadas por el hongo Fusarium Circinatum Niremberg et O'donnell.

Así mismo se compromete a cumplir las exigencias previstas en el Protocolo de Funcionamiento elaborado por la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico del Gobierno Vasco, adjunto anexo y rubricado en todas sus partes, por lo que garantiza el cumplimiento de todas las exigencias previstas en dicho Protocolo.

La empresa comunicará a la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico en el plazo de diez días las modificaciones o cambios realizados en las instalaciones o en las actividades, o cualquier otro que suponga modificación de los datos que constan en el Registro.

La empresa se compromete a facilitar las inspecciones a realizar por la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico, que podrán ser sin previo aviso, para controlar:

- La conformidad de las instalaciones respecto a las condiciones previstas en el protocolo mencionado.*
- El cumplimiento de las exigencias, sobre todo fitosanitarias, previstas en el Protocolo de Funcionamiento.*

Así mismo, la empresa se compromete a aportar toda la documentación que le sea requerida en orden a verificar el cumplimiento de los compromisos adquiridos.

En, a .. de de 2007.

Fdo.:

EL REPRESENTANTE LEGAL DE LA EMPRESA